

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspen
			1. orrialdea

MARKAREN ERREGELAMENDUA **EUSKO LABELA DUEN BASERRIKO** **TXERRIA**



NORK IDATZIA:	NORK BERRIKUSIA ETA ONARTUA:
 PRODUKTUAREN KUDEATZAILEA	 SUSTAPEN- ZUZENDARIA
Data: 2023/10/27	Data: 2023/10/27

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			2. orrialdea

BERRIKUSPENEN KONTROL-ORRIA

Oharra: aurreko bertsioarekin alderatuz egindako aldaketak nabarmendu egin dira (-----).

BERR. ATAL BERRIKU SIA	BERRIKUSITAKO ATALA	ORRIALDEA	BERRIKUSPE NAREN DATA.
2	2. artikulua (berme-markaren titulartasuna eta helbidea)	3	2013/10/30
	Paragrafo berria 77. artikuluan (kanona)	24	
3	2. art.- Markaren titularra aipatzea	3	2023/10/27
	20. artikulua.- Titia kentzea	9	
	23. eta 26. art.- Lehengaia eratzea	9-10	
	30. art. Ura edukitzea	11	
	37. art.- Baraua, testua ezabatzea	15	
	54. art.- Kanalen sailkapena	16	
	68. art.- Identifikatzea, etiketatzea eta merkaturatzea	19	
	74. art.- Ziurtapen- eta zaintza-sistema zehaztea	21	
	77. art.- Desadostasun-dokumentua aipatzea	24	
	78. art.- Tarifak	24	

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			3. orrialdea

I. KAPITULUA. OROKORTASUNAK

1. artikulua

Eusko Label bereizgarriak baserriko txerria deritzon kalitate-ziurtapena ematen du, eta txerri-haragi freskoari dagokio, baldin eta aire zabalean bizitako eta Euskal Autonomia Erkidegoan hil eta zatikatutako animalietatik badator eta erregelamendu honetan zein indarreko gainerako legerian xedatutakoa betetzen badu.

Horren ondorioz, Eusko Label bereizgarria erregelamendu honetan zehazten den txerri-haragiari soilik eman ahalko zaio, beste edozeini ez. Era berean, ezingo dira erabili antzekotasun fonetikoa edo grafikoa dela-eta erregelamendu honen xedea den terminoarekin eta zigiluarekin nahas daitezkeen izenak, esamoldeak, markak edo bereizgarriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko eremu geografikoan txerri-haragi freskoa ekoiztu eta merkaturatzen duen edozein operadorek marka erabili ahalko du, baldin eta erregelamendu honetan finkatzen diren betekizunak betetzen baditu.

2. artikulua

HAZI Fundazioa da (aurrerantzean, FHF) berme-markaren titularra, eta hari dagokio Eusko Label bereizgarria defendatzea eta sustatzea, Eusko Labelaren erregelamendua aplikatzea eta/edo aldatzea, betetzen dela zaintzea eta produktuaren kalitatea sustatzea eta kontrolatzea. FHF Muntzaratz dorrean dago: Muntzaratz kalea 17-A 48220 Abadiño (Bizkaia).

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			4. orrialdea

II. KAPITULUA. PRODUKTUAREN DEFINIZIOA ETA ANIMALIEN ETA KANALAREN EZAUGARRIAK

3. artikulua

Baserriko txerria izena Euskal Autonomia Erkidegoan hazi, hil eta zatikatutako txerri-haragi freskoarekin erabili ahalko da.

4. artikulua

Animaliek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- 4.1 Animalien genetika ezaguna izango da, eta onartuta egon behar du. Genotipoak ez du halotano genea izango, hala homozigosian nola heterozigosian.
- 4.2 Animaliak jaio eta 27. astetik aurrera hil beharko dira. Gutxienez, 182 egun izango dituzte, eta gehienez, 250 egun.
- 4.3 Baztertuko dira zikiratu gabeko arrak, kriptorkidoak, monorkidoak, hermafroditak eta hiltzeko garaian irausi dauden edo erditu berri diren emeak.

5. artikulua

Txerri-kanalek ezaugarri hauek izango dituzte:

- 5.1 Pisua: kanalen pisua 95 kilo izango da gutxienez (kanal beroaren pisua).
 - 5.2 Hala badagokio, muskulu-tasaren ehunekoa neurtuko da.
 - 5.3 Urdai dortsalaren lodiera 3 cm-tik gorakoa izango da.
 - 5.4 Osaera: txerri-kanalak eredu honen arabera sailkatuko dira: AA, A, B, C.
 - 5.5 Gantza: sendoa eta zuria.
-

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			5. orrialdea

5.6 Haragiaren kolorea: kolore ondo zehaztua, itxura uniforme eta homogeneoarekin. Haragiak ez ditu ohiz kanpoko koloreak izango.

5.7 Haragiaren sendotasuna eta itxura: sendoa izango da, exudatu gabe.

5.8 pH-a 5,8tik gora eta 6,7tik behera egongo da, hil eta 45 minutu eta bi ordu artean. Muskulu dorsa luzean neurtuko da, altuera berean beti.

6,7tik gorako pH-a duten kanalak zatikatzeko gelara sartu ahalko dira berriro 24 orduren buruan. Eta 5,6tik 5,9ra arteko balioa dutenak onartuko dira.

6. artikulua

Eusko Labela duen baserriko txerria aipatzeko baimena ematen da txerri-kanalaren zati ziurtagarrien deribatuak diren produktuen etiketetan, baldin eta erregelamendu honetan, marken dokumentu bakarrean eta indarreko gainerako legerian finkatuta dauden betekizunak betetzen badituzte eta eginda merkaturatzen badira. Aldez aurretik, eskaera egin eta FHFren baimena beharko da.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			6. orrialdea

III. KAPITULUA. EKOIZPENA

Ekoizpen-eremua

7. artikulua

Ekoizpen-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea da.

Abere-ustiategien ezaugarriak eta betekizunak:

8. artikulua

Ekoizpena egingo da Eusko Labela duen baserriko txerriaren erregistroetan inskribatuta dauden ustiategietan.

9. artikulua

Orientazio zooteknikoari dagokionez, ustiategietan txerrikumeak ekoiztuko dira, ziklo itxiko ekoizpena egingo da eta gizentzeko txerriak egongo dira.

Indarreko legerian finkatuta dagoena bete beharko dute, eta agintari eskudunak emandako erregistroak eta baimenak eduki beharko dituzte.

Ofizialki ziurtatuko dute ez dituztela Aujeszkyren gaixotasuna, txerri-izurri klasikoa, txerri-izurri afrikarra eta txerrien gaixotasun besikularra.

Gizentzeko txerrien ustiategiek animalia guztiak erregistratuta eta kontrolpean eduki behar dituzte.

10. artikulua

Osasungarritasuna dela eta, estalpea hutsik egongo da 15 egun, gutxienez.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			7. orrialdea

11. artikulua

Ekoizpen-parkeak ere hutsik egongo dira, landare-estalkia berritzeko eta lurak lehengoratzeko behar beste denbora.

12. artikulua

Gizentzeko txerrien hazkuntza-baldintzak direla eta, kudeaketa-plan bat ezarri eta aplikatuko da, eta FHFren onarpena beharko du.

13. artikulua

Azalerak direla eta:

- 13.1** Estalkian, sortako txerri guztiak aldi berean etzanda egon ahal izateko azalera beharko da, gutxienez, eta espazioa garbi eta lehor mantenduko da.
- 13.2** Gehieneko abere-kargak indarreko legeria bete behar du.
- 13.3** Ustiatzeko lurak kudeatzeko plan bat eduki eta aplikatuko dute, eta FHFren onarpena beharko du.

14. artikulua

Txerrien ustiatzeetan, biosegurtasuneko arauak finkatuko dira mikroorganismo patogenoak eta/edo haien bektoreak baserrietara sartu eta bertan transmititzeko sortu daitekeen arriskua minimizatzeko, eta, baserrien barruan, osasunarekin, ongizatearekin eta ekoizpenaren emaitzekin lotuta dauden dagozkion arauak beteko dira.

15. artikulua

Txerrien ustiatzeko hondakinak ekoitzi eta kudeatzeko plan bat izan eta aplikatuko dute.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			8. orrialdea

16. artikulua

Gizentzeko txerrien ustiategietan, animalia oldarkorrak, animalia erasotuak eta ezohiko portaera dutenak bereizi beharko dira. Horretarako instalazio egokiak izango dituzte.

17. artikulua

Txerriei muturra mutilatzea debekatuta dago.

18. artikulua

Ustiategietan animaliak kargatzeko sistema aproposa eduki behar dute, plataformekin edo, gehienez, % 15eko malda duten arrapalekin. Arrapalen bitartez kargatuz gero, babesak izan beharko dituzte alboetan.

Identifikatzea eta ustiategian geratzea.

19. artikulua

Ustiategiko txerri guztiak jaio eta gehienez astebetera identifikatuko dira estreinakoz.

Animalia bakoitzak behar bezala identifikatuta egon behar du une oro.

Erabiltzen diren identifikazio-sistemak FHFk onartu behar ditu lehenik.

20. artikulua

Titia kenduko da indarreko legeria betez.

21. artikulua

Gizentzeko ustiategia eta jaiotzeko ustiategia desberdinak badira, animaliek 15 aste egon beharko dute jaiotzekoan, gutxienez, hil aurretik.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			9. orrialdea

22. artikulua

Erregistro eguneratu bat eduki beharko da, xehetasun hauekin: altak, bajak, arbasoak, ustategien arteko mugimenduak eta beste gorabehera batzuk.

Elikadura

23. artikulua

Animaliak elikatzeko, pentsu osoak erabiliko dira. Konposizioa lehengai baimenduen zerrendan jasota dauden lehengaiek (ERREG-EBT-1ERANS) eta ustategiaren baliabideek osatuko dute.

24. artikulua

Fabrikatzaile guztiak eta elikaduran baliatzen diren pentsuak (norberak egindakoak zein komertzialak) baimenduak izango dira eta Eusko Labela duen baserriko txerriaren erregistroetan agertuko dira.

Pentsuak EAEn eginak izan behar dira.

25. artikulua

Pentsuen fabrikatzaileek kutsadura gurutzatua gertatzeko arriskua minimizatuko dute. Pentsua onartu ahal izateko, bateraezintasunen programa bat aurkeztu beharko dute.

Fabrikazioko birziklatuak erabiltzea debekatuta dago.

26. artikulua

Hazteko eta amaitzeko faseetan erabiltzen diren elikagai osoak lehengaien eta produktu baimenduen zerrenda positibo bat aintzat hartuta osatu behar dira. Zerrenda aldian behin berrikusi eta jendaurrean jarriko da.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			10. orrialdea

- A) ZEREALAK
- B) LEGUMINOSOAK
- C) OLEAGINOSOAK
- D) A, B eta C-REN DERIBATUAK
- E) MINERALAK eta deribatuak
- F) BITAMINAK, OLIGOELEMENTUAK **ETA BESTE BATZUK**

27. artikulua

A, B eta C multzoetako lehengaien ehunekoa ez da % 80tik beherakoa izango.

Zerealak ez dira % 65 baino gutxiago izango.

Mineralak eta bitaminak ez dira % 4 baino gehiago izango.

Melaza (lagungarri teknologikoa) ez da % 3 baino gehiago izango.

Gehitzen diren gantzak ez dira % 5 baino gehiago izango.

Azido linoleikoa ez da % 1,4 baino gehiago izango.

28. artikulua

Zerrenda positiboan agertzen ez diren lehengaiak eta produktuak debekatuta daude.

29. artikulua

Ustiategiak bere baliabideak erabili nahi baditu edo dieta osatzeko beste lehengairen bat nahi badu, FHFren berariazko baimena beharko da, erabiltzen hasi aurretik.

30. artikulua

Animaliek **ur garbia (jatorrizko ura)** edan ahalko dute nahi dutenean.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			11. orrialdea

Osasun-baldintzak eta tratamenduak: txerrien ustategietan albaitari baimendu bat egongo da.

31. artikulua

32. artikulua

Dagokion errezeta eman aurretik, tratamendu guztiak tratamenduen liburuan jasoko dira.

Ustategiko albaitariak justifikazio teknikoa adierazi beharko du tratamendu bakoitzean.

33. artikulua

Gizentzen hastean, prebentzio-tratamendu bat egin ahalko da, gehienez lehen hiru asteetan.

34. artikulua

Tratamendua pentsuan edo uretan egiten bada, ziurtatuko da animalia osasuntsuek hartzen dutena ez dela kutsatu.

35. artikulua

Edozein txerriri tratamendu bat eman bazaio hil aurreko 40 egunetan, banaka identifikatu beharko da.

Ziurtagiria lortzeko, tratamendua egiten denetik hil arteko denbora produktua desagertzeko aldia halako bi izango da.

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			12. orrialdea

36. artikulua

Gaixo dauden animaliak esparru bereizietan (lazaretoak) isolatuko dira osatzen diren arte.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			13. orrialdea

IV. KAPITULUA. HILTEGIRAINO GARRAIATZEA

37. artikulua

Garraiolariek eta garraiobideek indarreko araudia bete behar dute.

38. artikulua

Garraioa ibilgailurik eta baldintzarik egokienetan egingo dira, animaliek ez jasateko osotasun fisikoa eragotzi edo estresa eragiten dien asaldura edo enbarazurik.

39. artikulua

Animaliak ahalik eta leuntasun handienez kargatu behar dira. Metodo agresiboak erabiltzea debekatuta dago, baita elektrikoak ere.

40. artikulua

Kamioi berean hainbat ustiategitako animaliak eraman daitezke hiltegiraino, baldin eta atal bereizietan badaude eta kargatzeko nasa ustiategiaren kanpoaldean badago.

41. artikulua

Garraiatzean, txerriak zutik posizio naturalean edo denak aldi berean etzanda egoteko nahikoa espazioa edukitzeko moduko karga-dentsitatea behar da.

42. artikulua

Animaliak hiltegitira iritsi bezain laster deskargatu behar dira.

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			14. orrialdea

V. KAPITULUA. PROZESUA HILTEGIAN

43. artikulua

Animaliak hilko dira Eusko Labela duen baserriko txerriaren erregistroetan inskribatuta dauden hiltegietan.

44. artikulua

Txerriak eta proposatzen diren kanalak zain egon, hil eta biltegitratzean, sorta osoak eta independenteak hartuko dira, eta sortak bereizi egingo dira bata bestetik.

45. artikulua

Autokontrol-sistema bat ezarriko da kanalek salmonella ez dutela ziurtatzeko.

Hil aurreko itxaronaldia: ukuiluetan, ura *ad libitum* edateko askak egongo dira, argiztapen eta aireztapen egokiarekin.

46. artikulua

Harrera egiten denean, animaliak duxatu egingo dira itxaroteko ukuiluetan, aspertsio-sistemaren bidez eta tenperatura egokian.

47. artikulua

Sartzeko erreietan ez da angelu zuzenik edo etenik egongo. Lurzorua ez da irristakorra izango, eta atzera ezin egiteko sistema bat egongo da.

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			15. orrialdea

48. artikulua

Hil aurretik, animaliek bi orduko atsedena dia izango dute, gutxienez. Tenperatura 25°C-tik gorakoa bada, berehala hil ahalko dira.

49. artikulua

Erregistratu egingo da zenbat animalia hiltzen diren garraiatzean eta itxaroteko ukuiluetan.

Hiltzea eta jateko prestatzea

50. artikulua

Animaliak ahalik eta estres txikiena pairatzeko moduan hilko dira. Fase honetan, gutxieneko betekizun hauek daude:

50.1 Lasaitasunez geldiarazi eta zorabiatzea.

50.2 Erabat odolustea. (Elektronarkosi bidez zorabiatuz gero, berehala odolustuko dira, zorabioaren efektua ez desagertzeko).

51. artikulua

Kanalak jateko prestatuko dira indarreko legeriari jarraituz.

Zorabiatzen direnetik egurasteko ganberara sartu arte, ezin dira 25 minutu baino gehiago igaro.

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			16. orrialdea

Hoztea

52. artikulua

Kanala hoztuko da haren gainazala ez izozteko moduko tenperaturan.

53. artikulua

Inoiz ez da kondentsaziorik egongo kanalen gainazalean.

Kanalak sailkatu eta identifikatzea

54. artikulua

Kanalak hiltzeko lerroaren **atzean** sailkatuko dira, azterketa bat egin ondoren eta indarreko legeriarekin bat etorriz.

55. artikulua

Animalia bakoitzaren datuak hilketa-sorta bakoitzean erregistratuko dira.

56. artikulua

Kanalei buruzko datu hauek jaso behar dira: azken ustiategiaren kodea, hilketa-zenbakia, animaliaren identifikazio-zenbakia eta indarreko legeriak zein FHFk adierazitako beste marka batzuk.

57. artikulua

Proposatzen diren kanalak identifikatuta egongo dira beti.

Animalia baten identifikazioa irakurri ezin bada, osorik ez badago edo okerra bada, ez du markarako balio izango.

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			17. orrialdea

58. artikulua

Kanal osoak soilik sailkatuko dira.

59. artikulua

Kanal baten kolorea ohikoa ez bada edo beste edozein anomalia badu, baztertu egingo da.

60. artikulua

Sailkatu eta hoztu ondoren, erregelamendu honetan finkatutako betekizunak betetzen dituzten kanalak adierazten den moduan identifikatuko dira.

Hala badagokio, identifikagarriak zatikatu arte mantenduko dira.

61. artikulua

Egokitzat jotzen diren kanalekin batera, finkatzen diren dokumentuak joango dira.

VI. KAPITULUA. ZATIKATZEA, ONTZIRATZEA ETA ATONTZEA

62. artikulua

Animaliak zatikatuko dira Eusko Labela duen baserriko txerriaren erregistroetan inskribatuta dauden zatikatze-guneetan.

63. artikulua

Egokitzat jotzen diren kanalak 7°C-an sartuko dira zatikatze-gunean, gehienez, zatikatzea beroan egiten ez bada. Temperatura *longissimus dorsi* muskuluaren barruan neurtuko da.

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			18. orrialdea

64. artikulua

Garbitasun- eta higiene-baldintza optimoak bermatu behar dira instalazioetan, langileen artean eta zatikatu zein manipulatzeko eragiketa guztietan.

65. artikulua

Haragiaren trazabilitatea une oro bermatu behar da.

66. artikulua

Aretoetan, kanalaren eta ondoriozko zatien sarrera eta irteera guztiak erregistroetan jasoko dira.

67. artikulua

Ontziak direla eta, produktua erraz identifikatzea eta babestuta egotea ziurtatu behar da. Materialak garbiak, berriak eta usaingabeak izango dira, ez dute aldaketarik eragin behar produktuan, eta indarreko legeria bete behar dute.

VII. KAPITULUA. IDENTIFIKATZEA, ETIKETATZEA ETA MERKATURATZEA

Betekizun orokorrak

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			19. orrialdea

68. artikulua

Produktu ziurtatuaren identifikazioak eta etiketak Haziren onarpena beharko dute, adierazten den moduan eta bat etorritz produktuaren prozedura espezifikoarekin (Ontziak eta etiketak, PE-CER-EBT-DOC5).

69. artikulua

Hotz-katea mantenduko da, eta haragiaren barruko tenperatura 7°C edo baxuagoa izango da beti.

Garbitasun- eta higiene-maila optimoa dela ziurtatuko da.

Handizkako merkaturatzea

70. artikulua

Baserriko txerria merkaturatzen denean, kantitateak eta helmugak zehatz-mehatz jasoko dira. Ildo horretan, administratiboki dena argi egotea eta salerosketei buruzko informazioa argia izatea ziurtatzen duten behar beste bitarteko eta instalazio erabiliko dira, bai eta haragiaren kalitatea ongi mantentzekoak ere.

71. artikulua

Alabaina, ez dira inoiz merkaturatuko izoztuta dauden edo lehendik izoztu diren kanalak edo kanal horien zatiak.

Zatitan saltzen den establezimenduak: zatitan saltzen duten saltokiek Eusko Labela duen baserriko txerriaren erregistroetan inskribatuta egon behar dute, eta ziurtapen-prozesuan finkatuta dagoena bete behar dute.

72. artikulua

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 Baserriko Txerria Cerdo de Caserio	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			20. orrialdea

VIII. KAPITULUA. KALITATE-KONTROLA

73. artikulua

FHFk egokitzen jotzen dituen kontrol- eta ziurtapen-sistemak finkatuko ditu produktuaren prozesu-katean: ekoizpena, hilketa, sailkapena, identifikazioa, zatikatzea, prestatzea, kontserbazioa eta biltegiratzea, garraioa, ontziratzea, manipulazioa eta merkaturatzea. Era horretan, Eusko Label bereizgarriaren sinboloak daramatzan produktuak erregelamendu honetan eta araudi aplikagarrian datozen betekizun guztiak betetzen direla ziurtatuko da.

Lehenik eta behin, Eusko Labelen erregistroetan inskribatuta dauden operadoreak arduratu behar dira produktuaren trazabilitatea eta kalitatea kontrolatzeaz. Operadoreek sistema eragile eta kontrol-sistema egokiak eta nahikoak ezarri beharko dituzte beren lan-prozesuetan, FHFk adierazten duenari jarraikiz.

74. artikulua

Eusko Label bereizgarriaren erregistroetan inskribatuta dauden guztiek ikuskatzaile baimenduek egiten dituzten kontrolak onartuko dituzte, lagundu egingo dute eta eskatzen zaizkien datu eta dokumentu guztiak emango dituzte, ekoizpenari, hilketari, zatikatzeari, prestatzeari, ontziratzeari eta merkaturatzeari buruzkoak.

Markaren erabilera ziurtatu eta zaintzeko sistemaren xehetasunak ziurtapen-prozedura orokorrean (PO-ZIUR-01) eta produktuaren prozedura espezifikoan (ziurtapen-sistema, PE-ZIUR-EBT-DOK2) jasota daude, eta oinarri hau du:

1. Inskribatzeko eskatzen duten eta produktuaren ekoizpenean diharduten operadore guztien homologazioa (ekoizleak,

	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT 3. berrikuspena 21. orrialdea
---	--	--	---

pentsu-fabrikatzaileak, hiltegiak, zatikatzeko eta xerratze-guneak, saltokiak eta prestatzaileak), erregelamendu teknikoa eta ziurtapen-prozedura (orokorra eta espezifikoa) betetzen baldin badute.

Aurreko puntuan zehaztu denaz gain, etiketatzaileak(*) finkatuta duen autokontrol-sistema osoari auditoretza egiten zaio. Besteak beste, dokumentuak berrikusten dira, ikuskapena egiten da eta laginen entsegu analitikoak egiten dira.

Gainera, etiketatzaileek(*) marken dokumentu bakarrean adierazitako betekizun eta irizpide guztiak beteko dituzte.

2. Ondoko jarraipena operadore guztiei egingo zaie (ekoizleak, pentsu-fabrikatzaileak, hiltegiak, zatikatzeko eta xerratze-guneak, saltokiak eta prestatzaileak eta etiketatzaileak (*)), onartzen den urteko kontrol-planaren arabera.
3. Edozein operadoreri edo etiketatzailerik(*) ezohiko bisitak egingo zaizkie beharrezkoa den bakoitzean.

Egiaztapen-lanak egiteko, dokumentuak berrikusiko dira, operadoreei ikuskapen-bisitak egingo zaizkie, auditoretza partzialak egingo dira, autokontrol-sistemaren auditoretzak, entseguak eta administrazio-kontrolak onartzen den urteko kontrol-planari jarraituz.

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			22. orrialdea

(*) Operadore horiek ETIKETATZAILE izaera dute ziurtapen-prozedura orokorraren arabera (PO-ZIUR-01), eta haiek soilik dute baimena marka produktuen etiketan erabiltzeko. Halaber, etiketek erregelamendua betetzeko arduradunak dira.

75. artikulua

Produktuaren prozesu-katea eta ondoko azterketa kontrolatu eta gainbegiratzeko eta, orobat, prozesuen ziurtapena bideratzeko, enpresa edo teknikari espezializatuen zerbitzuak kontratatu ahal izango dira, eta egokitzen jotzen den kontrol-sistema ezarri.

IX. KAPITULUA. ERREGISTROAK

76. artikulua

FHFk edo hark zehazten dituen organoek erregistro hauek izango dituzte:

- Produktu ziurtatuaren etiketatzailen erregistroa (*). Operadore horiek etiketatzailer izaera dute ziurtapen-prozedura orokorraren arabera, eta haiek soilik dute baimena Eusko Labela duen baserriko txerriaren marka produktuen etiketan erabiltzeko. Halaber, etiketek erregelamendua betetzeko arduradunak dira.
- Ekoizleen erregistroa:
 - Txerrikumeen ekoizleak,
 - Gizentzeko txerrien ekoizleak,
 - Txerrikumeen eta gizentzeko txerrien ekoizleak (ziklo itxia),
- Pentsu-fabrikatzaileen erregistroa.
- Hiltegien erregistroa.
- ~~Zatikatzeko eta xerratze-guneen erregistroa.~~

hazi	MARKAREN ERREGELAMENDUA Eusko Labela duen baserriko txerria	 	ERREG-EBT
			3. berrikuspena
			23. orrialdea

- Saltokien erregistroa.
- Prestatzaileen erregistroa.

Erregistro horietan inskribatu eta jarraitzeko, kontrol-entitatearen adostasun-ziurtagiria (etiketatzailerak) edo aldeko txostena (operadorea) eduki beharko da ezinbestean.

X. KAPITULUA. NEURRIAK, ERREGELAMENDUA BETETZEN EZ BADA

77. artikulua

Erregistratuta dauden erabiltzaileek erregelamendu hau betetzen ez badute, FHFk zigortu egin ditzake abisuak bidaliz eta erregistroetako inskripzioa eta/edo marka erabiltzeko baimena aldi baterako edo behin betiko kenduz, produktuaren prozedura espezifikoan (desadostasunen zerrenda, PE-ZIUR-EBT-DOK4), ziurtapen-prozedura orokorrean (PO-ZIUR-01) eta gainerako dokumentu aplikagarrietan adierazten den bezala.

XI. KAPITULUA. TARIFAK

78. artikulua

17/2001 Legearen 69.1 artikuluan xedatuta dagoena betez, bereizgarriaren erabiltzaileek ez dute kanonik ordaindu behar horretarako, kontrol-kostuen kalterik gabe. Kostu horiek produktuaren prozedura espezifikoan (tarifak, PE-ZIUR-EBT-DOK6) jasota daude.